

## **EKAINAK 28: LGTBI+ KOLEKTIBOAREN SEXU ASKAPENAREN ETA HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

Ekainaren 28an, LGTBI+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren egunean, udaletik harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaudelako gure bizitzek, harro gure bizi historiaz, harro LGBTI+ mugimenduaz.

Hala ere, eraso LGBTI+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi ditu.

Hau horrela, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea eta LGBTI+fobiarik gabeko herri baten alde borrokatzen jarraitzea, zeinetan pertsona guztiak askatasunez, duintasunez eta beldurrik gabe bizi ahalko diren.

Kolektiboek eta norbanakoek urteetan zehar egindako lanari esker lorpen handiak egon dira. Orain antolatzea eta borrokatzen jarraitzea ezinbestekoa dugu, lorpenetan atzera pausurik ez egoteko eta eskubideetan aurrera egiten jarraitzeko. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... lantzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da.

Legorretako herria ez da errealitate horretatik kanpo gelditzen, orain dela urte batzuk aurkeztu genuen "Bizigarri" diagnostikoan argi azaltzen dira gure herritarren ahotatik jasotako bizipenetan zer nolako zapalkuntzak jasan dituzten. Tamalez, jasaten jarraituko dituzte denok egoera horri buelta emateko ardura hartzen ez dugun bitartean.

Udaletik konpromezu argia hartu dugu LGTBI+ pertsonak aintzakotzat hartuko dituzten udal politika publiko feminista integralak martxan jartzeko, LGTBI+ komunitatea osatzen dutenen eskubideak bermatuak izango diren herri bat nahi dugulako.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGTBI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora ekainaren 28a!